

# 2025-26 ikasturterako matrikula betetzeko gida

## BATXILERGOKO Matrikula EGITEKO KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Aurrematrikula osatuta, batxilergoan izena emateko pausorik zailena egina dago. Behin betiko onarpen zerrendak argitaratu ostean, matrikula ofiziala egitearen pausoa bakarrik geratzen da. Azken pauso hori askoz ere prozesu simpleagoa da.

Edozein zalantza argitzeko eta inprimakia bidaltzeko, idatzi [oiarzo@ikastola.eus](mailto:oiarzo@ikastola.eus) helbidera. Horrez gain, hala behar edo nahi izanez gero, deitu 943 52 38 04 telefono-zenbakira (08:00-14:30).

## **1.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK**

Aurkeztu behar den dokumentu bakarra **matrikula inprimakia** da. Aurrematrikula inprimakiaren oso antzekoa da, gauza bakanen bat aldatuta. Aurrematrikula-garaian entregatu gabe geratutako dokumentuak ere matrikula-garaian entregatu behar dira (edo aurrematrikula beste ikastetxe batean egin bazenuten, orain Oiartzon entregatu beharko dituzue).

Bi argazki ere ekarri behar dira, aurrematrikuluan ekarri gabe geratu baziren. Nortasun agirirako erabiltzen direnen neurrikoak izan behar dute.

## 2.- Matrikula-orria

Aurrematrikula-orriaren antzeko dokumentua da. Bertan norberaren datuak, aukerak eta bankuko datuak jarri behar dira. Aurrematrikulaziotik dokumenturen bat falta bada (argazkiak edo fotokopiaren bat), hau da horiek entregatzeko momentua.

Matrikula orria betetzeko kontuan izan beharrekoak:

Datuveli

Agiri ofizialetan dauden bezala idatzi behar dira ikasle eta gurasoen datuak. Oso garrantzitsua da helbide elektronikoa eta telefonoa modu ulergarrian agertzea. Gurasoek eta ikasleek ezin dute helbide elektroniko bera izan. Alexian kontu desberdinak izateko helbide desberdinak behar dira. **Ikasleek beren helbide elektronikoa ipini behar dute.** Alexian beraien profilak

sortzeko beharrezko da eta. **Helbide hori @oreretaikastola eta @haurtzaroikastola EZ IZATEA gomendatzen da.**

**Ikasketa aukerak:**

Aurrematrikuluan bezala, matrikula-orrian ere ikasketa-aukerak adierazi behar dira. Aurrematrikulakoak berreste da normalena, baina aldatu daitezke. Aldaketarik ikusiko balitz, deitu egingo zaizue, aldaketa egin egingo dela egiaztatu eta ziurtatzeko.

Modalitateei dagokien atala X batekin bete; eta aukerako gaiak, zenbakiz. Aukerako gaien aukeraketa askea denez Oiartzon, lehentasunaren arabera aukeratzea gomendatzen da (1-2-3 zenbakiek). Horrela, antolaketa edo plaza arazorik egongo balitz aukerako gairen batean, jakingo da zein den 3. aukera zuzenean aukera horretara bideratzeko.

**Datu gehigarriak:**

Orain arte aipatutako datuez gain, oso garrantzitsuak dira **garraio-aukera** eta **komunikazio-hizkuntza** ere. Oiartzoko informazioa eta jakinarazpenak euskaraz edo elebitan jasotzeko aukera dago. Garraioan hiru aukera daude: Ikastolako autobusa erabiltzea, autobus urbanoa erabiltzea edo norbera bere kasara etortzea. Aurrerago dago Ikastolako garraio-taula, ohiko geltoki eta ibilbideekin.

---

### 3.- BATXILERGOAREN EGITURA ETA AUKERAK

---

**Gai komunak:**

- Euskara eta Literatura I
- Gaztelania eta Literatura I
- Ingelesa I
- Filosofia
- Gorputz Hezkuntza

**Modalitateko gaiak:**

Batxilergoko modalitate bakoitzak berariazko ikasgaiak ditu:

ZIENTZIEN BATXILERGOA	GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA	
	Giza Zientziak	Gizarte Zientziak
Matematika I	Latina I	GZ Matematika I

**Ibilbideko gaiak:**

Ibilbide bat aukeratu behar da:

Fisika-Kimika eta Biologia-Geología	Mundu Garaikidearen Historia eta Ekonomia
Fisika-Kimika eta Marrazketa Teknikoa I	Mundu Garaikidearen Historia eta Literatura

### Aukerakoak:

Aukeratu hiru irakasgai, lehentasunaren arabera (1,2,3. Jarri “1” gustukoena den gaiari). Bi kurtsatuko dira. Taldeak sortzeko ezinbestekoa izango da gutxieneko ikasle-kopuruak izena ematea.

- Anatomia aplikatua
- Kultura zientifikoa
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak I (IKT)
- Frantsesa I
- Teknologia eta Ingeniaritza I
- Laborategi teknikak
- Ahozko eta idatzizko komunikazioa

### AUKERAKO GAIEN AZALPEN LABURRA

#### ANATOMIA APLIKATUA

Giza gorputza eta mugimendua ulertu, eta gorputz adierazpenarekin eta osasunarekin erlazionatzea ahalbidetzen duen ezagutza zientifikoa da. Gai honen edukiak hauek dira: anatomia deskribatzalea eta funtzionala, fisiologia, patologia eta jarduera fisikoaren zientziak. Irakasgai hau biologiako ezagutzekin guztiz lotuta dago.

#### KULTURA ZIENTIFIKOA

Irakasgai honetan Lurra planetaren eratzea, bizitzaren sorrera, genetika, biomedikuntzaren aurrerapenak, eta informazio eta komunikazio teknologia berriak aztertuko dira.

#### IKT I

Ikasketetan, aisialdian eta gizartearen parte hartzeko teknologia digitalak modu sortzaile, eraginkor, kritiko eta seguruaz erabiltzen irakasten duen gaia da.

#### FRANTSESA I

Ojartzo Ikastolan frantsesa da atzerriko bigarren hizkuntza. Ez da nahitaezkoa DBHn frantsesa ikasi izana.

#### TEKNOLOGIA ETA INGENIARITZA I

Izatez, zientziako modalitateko irakasgaia da. Ingeniaritzarako beharrezkoak diren ezagutzak landuko dira, hala nola, materialak, sistema mekanikoak, automatizazioa, elektronika, elektrizitatea eta ikerketa proiektuak.

#### LABORATEGIKO TEKNIKAK (BERRIA)

Irakasgai hau diziplina praktiko gisa eratuta dago. Bereziki zientzien adarretan (Biologian, Fisikan, Geologian eta Kimikan) eskuraturako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak laborategian garatuko dira. Halaber, ikasleak laborategiaren ezagutzan, funtzionamenduan eta esanahian barneratuko dira.

## AHOZKO ETA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA (BERRIA)

Irakasgaiaren helburua ingelesezko ahozko komunikazioan sakontzea da, ahozko komunikazioan trebetasuna hartza, eguneroko egoeretan zein egoera jakinagoetan eta konplexuagoetan, gizartean elkarreragiteko, eta ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko.

## 4.- LIBURUAK

---

Datorren ikasturterako liburu-zerrendak Oiartzko Ikastolaren web orrian argitaratuko dira, aurrerago. Gai askotan material propioa erabiltzen da, baina badira argitaletxeren baten liburua jarraitzen duten gaiak.

Elkar denden liburuak online erosteko aukera ere prestatu ohi da. Oiartzko Ikastolaren web orrian, liburuen atalean, esteka bat jarri ohi da dendara. Online erosten diren liburuek deskontu txiki bat izaten dute eta irailean Oiartzon bertan jasotzen dira.

Liburuen kontua prest dagoenean jakinaraziko zaie familiei.

## 5.- AUTOBUSA

---

Ikastolako autobus-zerbitzuaren ibilbideak eta geltokiak ondorengoak izan daitezke:

Orereta-Erreenteria	Oiartzun	Besteak
FANDERIA	MENDIBIL	LEZO
AGUSTINAK	PIKABENE	BERA
GAZTELUTXO	LONDON	LESAKA
TELEFONIKA	LIBURUTEGIA	
INSTITUTOA	BELUTENE	
ARALAR	ALTZIBAR	
PONTIKA	ITURRIOTZ	
	IBARRE	
	UGALDETXO	
	ARRAGUA (Aldi)	

## 6.- PROZEDURAK ETA EPE-MUGAK

---

Matrikulazioa Orereta edo Haurtzaro Ikastoletatik edota Oiartzoren web orritik ([www.ojartzoiakastola.eus](http://www.ojartzoiakastola.eus)) bideratuko da. Haurtzaro eta Orereta Ikastoletan, DBH4ko tutoreen eta orientatzaleen laguntzarekin, matrikula orriak banatuko dira. Ikasturtea bukatu baino lehen, Haurtzaro eta Orereta Ikastoletan eta Oiartzko Ikastolan bertan jasoko dira dokumentuak. Haurtzaro eta Orereta Ikastoletatik ez datozen ikasleek inprimakia Oiartzon bertan nahiz web orrian (deskargatuta) dute eskura, eta ondoren, presentzialki Oiartzon bertan nahiz e-mailez ([ojartzoiakastola.eus](mailto:ojartzoiakastola.eus)) entrega dezakete. Matrikularako epe ofiziala ekainaren 16tik 30era artekoa bada ere, Oiartzko matrikulak jasotzen joango da aurrez.

# Guía para cumplimentar la matrícula del curso 2025-26

## ASPECTOS A TENER EN CUENTA AL REALIZAR LA MATRÍCULA DE BACHILLERATO

Completada la prematrícula, ya se ha realizado el paso más complicado para cursar el bachillerato. Tras la publicación de las listas definitivas de admisión, queda el paso de oficializar la matrícula. Este último paso es un proceso mucho más sencillo.

Para aclarar cualquier duda o consulta: [oiartzo@ikastola.eus](mailto:oiartzo@ikastola.eus) y/o 943 52 38 04 (08:00-14:30).

## 1.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

El único documento que hay que presentar es el **impreso de matrícula**. El impreso de la matrícula es muy similar al de prematrícula, con alguna modificación. Los documentos que no se entregaron en la prematrícula también deben entregarse con la matrícula (en los casos que la prematrícula se haya hecho en otro centro, ahora, en plazo de matrícula, se deben entregar en Oiartzko).

Igualmente habrá que traer dos **fotografías si no se entregaron con la prematrícula**. Deben ser de tamaño carné.

## 2.- IMPRESO DE MATRÍCULA

The form is a standard application for secondary school enrollment. It asks for basic personal information (name, date of birth, address), family details (parents' names, addresses), and educational background (previous studies, grades). It also includes sections for 'Bachillerato modalitateak eta aitzak' (Educational modalities and choices) and 'Zientzien Batz. (Líneas)' (Subject Lines). At the bottom, there are fields for 'Kontrola' (Control) and 'Firma del responsable del alumno' (Signature of the student's responsible person). There are also small legal disclaimers at the very bottom.

Es un documento similar a la hoja de prematrícula. En él debéis incluir vuestros datos, elecciones y datos del banco. Si falta algún documento de la prematrícula (fotos o fotocopia), es el momento de entregarlo. A la hora de llenar el formulario hay que tener en cuenta:

### Datos:

Los datos de alumnos/as y padres/madres deben cumplimentarse tal y como aparecen en los documentos oficiales. Es muy importante que el correo electrónico y el teléfono aparezcan de manera comprensible. **Los alumnos/as deben poner su correo electrónico personal**, ya que debe ser así para crear sus perfiles en Alexia. Se recomienda que dicha dirección no sea @oreretaikastola ni @haurtzaroikastola.

Opciones de modalidades:

Al igual que en la prematrícula, aquí también hay que indicar las opciones de modalidad. Se pueden confirmar los de la prematrícula o elegir otras, tanto en las de modalidad como en las asignaturas optativas.

Se debe cumplimentar con una X el apartado correspondiente a las modalidades y numéricamente el de las asignaturas optativas. Puesto que en Oiartzto se deja libre la elección de los temas optativos, se debe elegir por prioridad con números (1-2-3). Así, si hubiera problemas de organización o de plazas en alguna asignatura opcional, se sabrá cuál es la opción 3 para destinar directamente a esa opción.

#### Datos adicionales:

Además de los datos ya mencionados, son muy importantes la opción de **transporte e idioma** de comunicación. Las comunicaciones se pueden recibir en **euskera o en bilingüe**. En lo que se refiere al transporte, existen tres opciones: utilizar el autobús de la Ikastola, utilizar el autobús urbano o que cada uno o una venga por su cuenta. Más adelante encontraréis información sobre el transporte de la Ikastola con las paradas y recorridos habituales.

### **3.- ESTRUCTURA Y OPCIONES DEL BACHILLERATO**

---

#### **Asignaturas comunes**

- Lengua vasca y literatura I
- Lengua castellana y literatura I
- Inglés I
- Filosofía
- Educación física

#### **Asignaturas de modalidad**

Cada modalidad de bachillerato tiene sus asignaturas propias:

<b>BACHILLERATO DE CIENCIAS</b>		<b>BACH. DE HUMANIDADES Y CIENCIAS SOCIALES</b>	
		<b>Humanidades</b>	<b>Ciencias sociales</b>
Matemáticas I		Latín I	Matemáticas CS I

#### **Asignaturas de itinerario**

Elegir una de las siguientes opciones:

Física-química y Biología-geología	Historia del mundo contemporáneo y Economía
Física-química y Dibujo técnico I	Historia del mundo contemporáneo y Literatura

### Asignaturas optativas

Se deben elegir tres asignaturas por orden de preferencia (1,2,3). (Poner un “1” a la asignatura más deseada. Se cursarán dos). Para formar grupo será necesario un número mínimo de alumnos/as.

- Anatomía aplicada
- Cultura científica
- Tecnologías de la Información y Comunicación I (TIC)
- Francés I
- Tecnología e ingeniería I
- Técnicas de laboratorio
- Comunicación oral y escrita

### DESCRIPCIÓN DE LAS ASIGNATURAS OPTATIVAS

#### ANATOMÍA APLICADA

Esta asignatura aporta los conocimientos científicos que permiten comprender el cuerpo humano y su motricidad en relación con las manifestaciones corporales y con la salud. Su contenido se ocupa del estudio del cuerpo humano y de su motricidad: anatomía descriptiva y funcional, fisiología, patología y ciencias de la actividad física. Esta asignatura está estrechamente ligada a los conocimientos de biología.

#### CULTURA CIENTÍFICA

En dicha asignatura se tratarán temas tales como la formación de la Tierra, el origen de la vida, la genética, los avances biomédicos y por último lo relacionado con las nuevas tecnologías de la información y la comunicación.

#### TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y DE LA COMUNICACIÓN (TIC) I

Esta asignatura trabaja el uso creativo, crítico, eficaz y seguro de las tecnologías digitales para el aprendizaje, el ocio, la inclusión y participación en la sociedad.

#### FRANCÉS I

En Oiartzko Ikastola se impartirá el francés como segunda lengua extranjera. No es necesario haber cursado francés en la ESO.

#### TECNOLOGÍA E INGENIERÍA I

Es una asignatura de la modalidad de ciencias. Se trabajarán conocimientos necesarios para la ingeniería, por ejemplo, materiales, sistemas mecánicos, automatización, electrónica, electricidad y proyectos de investigación.

#### TÉCNICAS DE LABORATORIO (NUEVO)

Esta materia está configurada como una disciplina práctica de los conocimientos, habilidades y actitudes adquiridos en las ramas de las ciencias (Biología, Física, Geología y Química). En efecto, se desarrollarán en el laboratorio. Asimismo, los alumnos/as se familiarizarán con el conocimiento, funcionamiento y significado del laboratorio.

## COMUNICACIÓN ORAL Y ESCRITA (NUEVO)

El objetivo de la asignatura es profundizar en la adquisición de la competencia comunicativa oral en inglés, de forma que la comunicación oral se realice sin esfuerzo, tanto en situaciones cotidianas como más específicas y complejas, para interactuar en la sociedad y comprender y producir textos orales.

## 4.- LIBROS

---

Las listas de libros para el próximo curso se publicarán más adelante en la página web de Oiartzko Ikastola. En muchos temas se utiliza material propio, pero hay asignaturas que siguen el libro de alguna editorial.

Se suele preparar una opción de compra online con la tienda Elkar. En la página web de Oiartzko Ikastola, en el apartado de los libros, se pone un enlace a la tienda. Los libros se compran online con un pequeño descuento y en septiembre se reciben en el propio centro. Cuando esté preparada la lista de libros, las familias serán informadas al respecto.

## 5.- SERVICIO DE TRANSPORTE

---

Estos son los recorridos y paradas posibles del servicio de transporte de la Ikastola:

Orereta-Errenteria	Oiartzun	Otros
FANDERIA	MENDIBIL	LEZO
AGUSTINAK	PIKABENE	BERA
GAZTELUTXO	LONDON	LESAKA
TELEFONIKA	LIBURUTEGIA	
INSTITUTOA	BELUTENE	
ARALAR	ALTZIBAR	
PONTIKA	ITURRIOTZ	
	IBARRE	
	UGALDETXO	
	ARRAGUA (Aldi)	

## 6.- PROCEDIMIENTOS y FECHAS

---

La matriculación se tramitará desde la Ikastola o desde [www.oiartzkoikastola.eus](http://www.oiartzkoikastola.eus). Con la ayuda de tutores/as y orientadores/as de 4º de ESO, en las Ikastolas Haurtzaro y Orereta se repartirán las hojas de matrícula. Antes de finalizar el curso, se recogerá la documentación en las Ikastolas Haurtzaro, Orereta o Oiartzko. Quienes no están cursando la ESO en Haurtzaro u Orereta pueden recoger el impreso en Oiartzko o descargarlo desde la página web, y entregarlo presencialmente en Oiartzko o por email ([oiartzko@ikastola.eus](mailto:oiartzko@ikastola.eus)). Aunque el plazo oficial de matriculación es del 16 al 30 de junio Oiartzko irá recogiendo los impresos de matrícula antes de esas fechas.